

Jardun koordinadorak webgunea eta sare sozialak plazaratu ditu

JARDUN :: 05/03/2021

JARDUN-en proiektu politikoa gizarteratu eta bere jardunaren inguruko informazioa eskaintzea da helburua.

[Euskara]

JARDUN-en proiektu politikoa gizarteratu eta bere jardunaren inguruko informazioa eskaintzea da helburua.

JARDUN - Euskal Herri Langilearen alternatibak bere proiektu politikoa zabaltu, aurrera daramatzan ekimen ezberdinen inguruko informazioa erraztu eta Euskal Herri Langilearekiko hartu eman jarraitua mantentzeko izaera digitaleko bitartekari ezberdinak abiarazi ditu.

Hori egiteko, koordinadorak webgune bat eta Twitter, Facebook eta Instagram kontuak zabaltu ditu. Bertan, JARDUN-en eta berau osatzen duten antolakunde ezberdinen inguruko informazioa aurkitzeaz gain, baliabide ezberdinak plazaratuko dira. Hala nola, JARDUN zein honen parte diren antolakunde ezberdinen dokumentazioa, irakurketak, agiriak eta baita mugimendu iraultzailea aurrera eramaten ari den edo eramango dituen ekimen, kanpaina eta deialdi ezberdinak jasoko dira. Era berean, mugimendu iraultzailearekin zerikusia duten informazio eta berri oro aurkitu ahalko dira bitartekari digitalean.

Honakoak dira martxan jarritako bitartekari ezberdinak:

[Webgunea](#)

[Twitter kontua](#)

[Facebook kontua](#)

[Instagram kontua](#)

[Castellano]

El objetivo es facilitar la socialización del proyecto político y ofrecer información sobre la actividad de JARDUN.

JARDUN ha puesto en marcha distintos medios de carácter digital para difundir su proyecto político, facilitar información sobre las distintas campañas que lleva a cabo y para mantener un contacto continuado y fluido con el pueblo trabajador vasco.

Para eso, la coordinadora ha abierto una de cuenta de twitter, de facebook, y de instagram junto con una pagina de web. En estos podrá encontrar información sobre JARDUN y las organizaciones que la componen junto con otro tipo material. Esta material englobara toda

lectura, documento y comunicados de cada una de las organizaciones que conforman JARDUN, además información de las distintas campañas y llamamientos. En la misma línea, en dichos medios digitales se podrán encontrar toda la información y noticias relacionadas con el movimiento revolucionario.

Estos son los distintos medios que se han puesto en marcha:

Página web

Cuenta de twitter

Cuenta de facebook

Cuenta de instagram

<https://eh.lahaine.org/jardun-koordinadorak-webgunea-eta-sare>